

**LITERATUR ITZULPENA: BÉCQUERREN *LOS OJOS VERDES* KONDAIRAREN EUSKARARAKO ITZULPENA
ETA ANALISIA**

Egilea: Jone Atxa Palacios

Tutorea: Elizabete Manterola Agirrezabalaga

Ingeles eta Aleman Filologia eta Itzulpengintza eta Interpretazio Saila

Itzulpengintza eta Interpretazioko Gradua

Letren Fakultatea

2020/2021 ikasturtea

LABURPENA

Gradu Amaierako Lan honen helburu nagusia Bécquerren *Los ojos verdes* izeneko kondaira euskaratzea izan da. Baina itzulpenaz gain, lan honek itzuli baino lehenagoko lanketa eta itzuli bitarteko hainbat hausnarketa ere biltzen ditu. Izan ere, testu bat itzultzeak berarekin dakar hainbat erabaki hartzea, eta horretarako beharrezkoa da aukera desberdinak aztertzea eta baloratzea, eta hautua kontzienteki egitea.

Bécquer oso idazle ezaguna da hainbat motatako testuak idatzi baititu. Kondairez gain, hainbat lan ezagun idatzi ditu prosan, hala nola *Desde mi celda* bildumako gutunak, eta poesiari dagokionez ere fama eta garrantzi literario handia dute haren errimek. Beraz, nahiz eta itzulgaia prosaz idatzitako kondaira bat izan, idazleak zituen beste gaitasunek ere eragina dute, horiei esker baliabide ugartasun handia duelako. Hortaz, kondaira honetan erabiltzen diren errekurtsuak identifikatzea garrantzitsua da horiek sortzen duten efektua itzulpenean islatzen saiatzeko.

Hori dela eta, itzulpenari heldu baino lehen, Bécquerri eta bere lanean eragina izan duten mugimendu kulturei buruzko hainbat datu emango dira testuingurua ezagutzeko eta, jarraian, itzulgaia osatzen duten elementu garrantzitsuenak identifikatu eta ondo ulertzeko jatorrizko testua eta idazle beraren beste obra batzuekin duen erlazioa aztertuko dira. Segidan, Bécquerren zein lan euskaratu diren aipatuko da, eta itzulpenaren irakurle posibleei buruzko hausnarketa bat aurkeztuko da itzulpen estrategia orokor bat finkatzeko. Horren ostean, itzulpena bera aurkeztu eta itzulpen prozesuan zehar hartutako hainbat erabakiri buruzko informazioa emango da. Ondoren, lan honetatik ateratako ondorio nagusiak aurkeztuko dira eta, amaitzeko, lanean zehar aipatutako erreferentzia bibliografikoak.

Aipatu beharrezkoa da, Bécquer hain idazle ezaguna izanik haren obrak oso hedatuta daudenez, bertsio desberdinak aurkitu daitezkeela eta jatorrizkoaren bertsioaren arabera itzulpena ere desberdina izango dela. Horregatik, garrantzitsua da itzulpena egiteko jatorrizkoaren bertsio fidagarri bat izatea: hain zuzen ere, lan hau egiteko *CervantesVirtual* web orrian eskuragarri dagoen Bécquerren *Rimas y Leyendas* lanetik hartu da kondaira, eta eranskin gisa gehitu da lan honen amaieran. Era berean, eranskin gisa gehitu dira lanaren laugarren atalean aipatutako Bécquerren errimak, lan honetako itzulgaiarekin duten loturagatik.

AURKIBIDEA

1. Sarrera.....	4
2. Jatorrizkoaren idazlea eta testuingurua.....	4
2.1. Bécquer	4
2.2. Garaia: erromantizismoa eta errealismoa.....	5
3. <i>Los ojos verdes</i>	6
4. <i>Los ojos verdes</i> eta Bécquerren hainbat poemaren arteko erlazioa.....	9
5. Euskaratutako Bécquerren lanak	10
6. Itzultzen hasi aurreko hausnarketa.....	11
7. Itzulpena	11
8. Itzulpenaren iruzkina	19
8.1. Tratamendua.....	19
8.2. Lexikoa: ehiza-giroa.....	20
8.3. Esaldi luzeak	22
8.4. Deskribapenak: elementu bisualak eta soinua.....	24
8.5. Letra larria eta etzana	25
9. Ondorioak	26
10. Bibliografia.....	28
1. Eranskina: Jatorrizko testua	30
2. Eranskina: Bécquerren XI., XII., XIV. eta XV. errimak	37
2.1. Rima XI.....	37
2.2. Rima XII.....	37
2.3. Rima XIV	39
2.4. Rima XV	40

1. Sarrera

Lan honen oinarria itzulpen praktika bat da, hain zuzen ere, Bécquerren *Los ojos verdes* izeneko kondairaren itzulpena. Horren arrazoa da literatur itzulpena landu nahi nuela eta horretarako kontakizun labur bat itzultzea iruditu zitzaidan aukera egokiena; lanaren luze-laburra kontuan hartuta, itzulgaiak ez zuen luzeegia izan behar, alde batetik, istorioa bere osotasunean landu nahi nuelako (horrek itzulpen erabakiren bat baldintzatu dezakeelako), eta, bestetik, itzultzeaz gain, prozesuari buruz hausnartzea ere garrantzitsua iruditzen zaidalako.

Kondaira zehatz hau hautatzearen arrazoi nagusia da pertsonalki asko gustatzen zaidan kontakizun bat dela; ez bereziki istorioan bertan gertatzen denagatik, baizik eta istorioa kontatzeko moduagatik eta irakurlea kondairako giroan murgiltzea lortzen duelako. Gainera, interesgarria iruditzen zait Bécquer bezalako idazle garrantzitsu batek erabiltzen dituen baliabideak aztertzea apur bat hobeto ulertzeko zergatik den hain goraiatua.

Nahiz eta lan honen helburua *Los ojos verdes* kondaira itzultzea izan, hasteko itzulgaiaren lanketa sakona egingo dut. Lanketa horrek hainbat atal izango ditu: lehenengo, idazleari eta bere obran eragina izan duten mugimendu kulturei buruzko informazioa bilduko dut. Ondoren, jatorrizko testua aztertuko dut, kondaira osatzen duten elementuak eta idazleak erabiltzen dituen baliabideak identifikatzeko. Era berean, kondaira hau hobeto ulertzeko Bécquerren errima batzuekin izan dezakeen erlazioa aztertzea interesgarria da, zehazki XI., XII., XIV. eta XV. errimekin duen erlazioa, antzeko hainbat elementu baitituzte. Jarraian, Bécquerren beste itzulpen batzuk egin diren begiratuko dut eta, itzuli baino lehenagoko lanketarekin amaitzeko, itzulpen estrategia orokor bat finkatuko dut itzulpenaren irakurleengan pentsatuz. Horren ostean, itzulpena txertatuko dut, itzulpen-prozesuan zehar aurkitutako zailtasun batzuk eta hartutako erabaki batzuk azaldu, eta azkenik, ondorio batzuk aterako ditut.

2. Jatorrizkoaren idazlea eta testuingurua

2.1. Bécquer

Nahiz eta Bécquer izenez ezaguna izan, Gustavo Adolfo Domínguez Bastida zuen izen osoa. Sevillan jaio zen 1836an, eta Madrilen hil, 1870ean. Haren familiak jatorri flamenkoa zuen, merkatariak ziren eta Flandriatik Sevillara joan ziren bizitzera

XVI. mende amaiera eta XVII. mende hasiera inguruan, baina Bécquer jaio zenerako jada ez ziren merkatariak: haren aita, osaba eta anaia margolariak izan ziren, eta Bécquer bera ere txikitatik izan zen trebea bai pinturan baita musikan ere. Hala ere, literaturaren bidetik jo zuen eta bere gustu literarioa txikitan irakurri zituen hainbat autorek baldintzatu zuten, hala nola Horaciok, Esproncedak, Zorrillak eta Rousseauk.

1854an Madrilera joan zen bizitzera eta bertan kazetaritzaren munduan sartu zen; izan ere, bizi zela kazetari gisa izan zen ezaguna, argitaratu zituen poemetatik asko anonimoki argitaratu zituelako. Zaragozako Santa María de Veruela monastegian bizi izan zen 1863 eta 1864 artean osasun arazoak sendatzeko, eta bere anaiarekin batera Espainiako beste toki batzuk ezagutzeko aukera izan zuen; hortik dator Soria, Aragoi eta Toledori emandako arreta literarioa, besteak beste.

Bécquerren lan ezagunenetariko bat bere poemak biltzen dituen *Rimas* izan zen, zeina bera hil eta gero argitaratu zuen poetaren lagun talde batek 1871n. Poema horiek sinbolismoaren aurrekaritzat jotzen dira, eta idazleak erabiltzen dituen baliabideetako batzuk dira bertso laburra, asonantzia, oin hautsiak, lexiko hautatua, eta poemei musikaltasuna ematen dien erritmo zaindua (Reyes Cano, d.g.).

Kondairei dagokionez, 1858 eta 1863 artean argitaratu zituen Madrilgo zenbait egunkari eta aldizkaritan. Aurrekari izan zituen, esaterako, Esproncedak edota Zorrillak idatzitako kondairak, baina horiek bertsoan zeuden eta Bécquerrek prosan idatzi zituen bere kondairak. Pentsa daiteke, prosan idaztearen arrazoia izan zela egunkarietan argitaratzen zuenez publiko orokorra arengana heldu behar zuela (Estrucha Toella, 2011). Hala ere, lirikotasuna mantentzen du, fantasia eta misterioz betetako giroak sortzen ditu, eta emozioa, sentipenak eta subjektibotasuna transmititzen ditu.

2.2. Garaia: erromantizismoa eta errealismoa

Garaiari dagokionez, erromantizismoan kokatu ohi da Bécquer. Sailkapen batzuen arabera erromantizismoa 1850 inguruan bukatu zen eta Bécquerren lanetako asko beranduago argitaratu ziren; hala ere, oraindik multzo horretan sartzen dute adituek, mugimendu hartako ezaugarri esanguratsuenetarikoak biltzen dituelako.

Erromantizismoa ilustrazioari erantzun gisa sortutako mugimendua dela esan ohi da, arrazoimenaren ordeztu sentimenduak baitira nagusi. Sentimendu horien artean sarritan

aipatzen direnak dira melankolia, bakardadea edota bizitzaren iheskortasuna, eta horiekin lotuta toki ilunak. Gainera, garai honetako beste ezaugarri bat errealitatearen pertzepzio subjektiboa da; izan ere, erreala eta fantasiazkoa denaren arteko muga lausotzen da eta hori bera adierazten du Bécquerrek *Rimas y leyendas* liburuko sarreran honako hau dioenean: “Me cuesta trabajo saber qué cosas he soñado y cuáles me han sucedido” (Bécquer, 2005).

Gorago aipatu bezala, Bécquerren garaian erromantizismoa amaituta zegoela diote adituek, eta beraz, horren aurkako erreakzio gisa beste mugimendu bat hasi zen garatzen: errealismoa. Mugimendu berri honen eragina eta ezaugarri batzuk ere baditu idazleak; hain zuzen ere, errealismoan fantasiazko elementuak sinesgarriagoak izan behar dira eta Bécquerrek nolabaiteko sinesgarritasun puntu bat lortzen du bere kondairetan naturaz gaindiko elementuak neurtuz eta benetan existitzen diren elementuak erabiliz (istorioen kokapenak, adibidez).

3. *Los ojos verdes*

Los ojos verdes izeneko kondaira 1861ean argitaratu zen *El Contemporáneo* egunkarian. Hiru zatitan banatuta dago eta Bécquerren beste kondaira batzuek bezala ondoko egitura du: tabu edo debeku bat aurkezten da, pertsonaia batek egin beharko ez litzatekeen hori egiten du eta, horren eraginez, zigor bat jasotzen du. Egitura honetako lehenengo bi elementuak kondairaren lehen atalean daude: ehizan ari direla Iñigok Fernandori aintzirako izakiaren inguruko sinesmenak kontatu eta haren mendeko lurretara ez sartzeko eskatzen dio; Fernandok, ordea, orein zauritua harrapatu nahian aurrera jarraitzen du. Bigarren atalean, Fernandok egindakoaren eraginez bere gain duen sorginkeriaren ondorioak ikusten hasten dira eta, amaitzeko, azken atalean nolabaiteko zigorra jasotzen du.

Esan liteke lehenengo atalak besteek baino kutsu errealistagoa duela: bertan ehiza giro ohikoa erakusten da eta irakurlearentzako ezagunak izan daitezkeen elementuak ageri dira (Moncayo mendia, Soria...). Gainera, Iñigok Fernandori iturriari buruz kontatzen diona errealismotik urruntzen den arren, hori ere elementu erreal bat dela pentsa liteke kontuan hartuta garai batean oso ohikoak zirela mota horretako sinesmenak.

Egiazko elementu horiek istorioa kokatzen laguntzen dute. Alde batetik, istorioa Sorian geratzen da probintzia hori aipatzeaz gain, Moncayo mendia¹ ere aipatzen delako. Bestalde, istorioa Erdi Aroan kokatuta egotea posible da; izan ere, Almenarreko markesak aipatzen dira eta pentsatzekoa da izen bereko gazteluan bizi zirela, hots, Almenar de Soria izeneneko herrian dagoen Erdi Aroko gazteluan².

Hala ere, lehenengo atalaren kutsu errealistarekin batera hainbat topiko erromantiko daude, adibidez, mugimendu horretako idazleek sarri kokatzen dituzte istorioak Erdi Aroan. Era berean, erromantizismoko gai ohikoenetako bat da nagusi atal horretan: heriotza. Gai horrek pasarteko jarduera nagusiarekin, ehizarekin, lotura zuzena izateaz gain, erabiltzen den hiztegian ere islatzen da (“sangre”, “morir”, “herir”, “matar”, “perder el ánima”, “su carrera se acorta”).

Bigarren atalean, Fernandok duen sorginkeriak hizkeraren tonua aldatzen du: erromantizismoan ohikoa den giro triste eta iluna transmititzen du “funesto”, “sombrio”, “soledad” edota “melancolía” bezalako hitzekin, eta lausotasuna ageri da “rumor indescriptible” bezalako esamoldeetan. Hala ere, horrekin kontrastatzen dute iturria eta bertako emakumea deskribatzerakoan argitasun puntu bat ematen duten esapideek, hala nola “brillan como puntos de oro”, “rayo de sol”, “haz”, “brillaban como hilos de luz”.

Hirugarren atala are misteriotsuagoa da eta behe-lainoak garrantzi handia du: aintzirako emakumearekin batera agertzen da eta sorginkeria islatzen duela dirudi, izan ere, pixkanaka-pixkanaka igotzen da eta amaieran lainoak ia erabat estali ditu pertsonaiak, emakumeak Fernando liluratu duen bezala. Kasu honetan ere argi puntu bakarra aintzirako emakumearekin lotuta dago, hots, naturaz gaindiko elementuarekin (“la luna rielaba, los ojos verdes brillaban como los fuegos fatuos que corren sobre el haz de las aguas”).

Beraz, elementu bisualak garrantzi handia du; giro triste, ilun edota lainotsuak askotan agertzen baitira erromantizismoan (bai literaturan, baita, adibidez, margolanetan ere). Giro horiek misterio mundura bidaltzen gaituzte, non arrazoimenak lekurik ez duen, eta pentsa liteke emakumearekin lotutako argia dela damak giro ilun horretan ibiltzeko behar

¹ Soria eta Zaragozaren arteko mugan.

² Bertan hainbat jaun bizi izan ziren, baina dirudienez ez zen markesik izan (Fernandez & Rupérez, d.g.; Ayuntamiento de Almenar de Soria, d.g.).

duena. Gainera, emakumea inguratzen duen argitasunak nolabaiteko izaera jainkotiar edo naturaz gaindikoa ematen diola ere esan liteke.

Elementu bisualaz gain, giroa sortzeko Bécquerrek kondaira osoan zehar erabiltzen duen beste baliabide bat soinua da. Lehenengo atalean ehiza giroko zalaparta ageri da: zakurren zaunkek, tronpen soinuak edota pertsonaien garrasiek osatzen dute zarata hori. Bigarren eta hirugarren ataletan, ordea, isiltasunak ugariagoak dira, ez baitira bakarrik berariaz aipatutakoak, baizik eta baita zarata edo soinu eza adieraziz sortutakoak ere. Era berean, bi atal horietan giroa lausotzen duten zurrumurru eta xuxurlak ere badaude.

Kondairan jorratzen diren gaiei dagokienez, gorago aipatu bezala, lehenengo atalean heriotza da nagusi, baina horrekin batera, bigarren eta hirugarren ataletan maitasunak ere garrantzia hartzen du. Bi gai horiek bereizita aurkezten dira bigarren atalean, ondoren, hirugarrenean, nahastu egiten dira, eta amaieran, derrigorrez batera gertatu behar dutela dirudi.

Alde batetik, bigarren atalean Fernandok egiten duen iturriaren deskribapena bizitzaren metafora gisa uler daiteke: ur tantak iturrian jaiotzen dira (iturria “sehaska” izanik), eta jarraian, tantek egiten duten ibilbidean aditzek mugimendua eta bizitasuna ematen diete (“saltan, y huyen, y corren”); mugimendu hori amaitu egiten da aintzirara heltzean, non hizkera ilunagoa bihurtzen den eta uraren gainazal geldiak heriotza irudika dezakeen. Metafora horrek heriotzaren eta aintziraren arteko lotura erakusten du, nahiz eta oraindik ez den heriotza aintzirako emakumearekin zuzenean lotzen. Bestalde, maitasunaren ideia beranduago adierazten du Fernandok esanez edozer emango lukeela emakume horren begirada batengatik, eta horrela, emakumearen eta maitasunaren arteko lotura ezartzen da.

Bi ideia horiek hirugarren atalean nahasten dira eta hori argi ikus daiteke Fernandok dioenean emakumea maiteko duela baita bizitza honetatik haratago ere, hiltzen denean, alegia. Era berean, emakumea maitasunaren ideiarekin lotuta badago eta aintzira heriotzarekin, emakumeak dioenean aintzirako ura bezalakoa dela, maitasuna eta heriotza parekatzen direla esan liteke. Maitasuna eta heriotzaren bateratzea istorioaren amaieran ikus daiteke, izan ere, amaiera hau bi eratara uler daiteke: Iñigok dioenaren arabera, aintzirako emakumea maltzurra da eta mendeku hartuko du, hortaz, heriotza zigor gisa ulertzen du. Hala ere, pentsa daiteke Fernando heriotzaren bidez bere maitearekin betiko elkartuko dela eta, kasu horretan, heriotza ez litzateke zigor bat izango, baizik eta opari

edo sari bat; are gehiago, Fernandoren jokabidea aztertuz, badirudi hain dagoela maitasunez erotuta, non emakumea benetan maitatzeko hiltzea ezinbestekoa dela pentsa dezakeen.

Horrez gain, erromantizismoko ezaugarrietako bat da tradizioa berreskuratzea, eta kondaira honetan topiko klasiko bat errepikatzen da: emakume itxurako izaki misteriotsu bat iturri batean bizi da eta hura aurkitzen duenari ez zaio ezer onik etorriko; emakume hori tradizio klasikoko ninfa bat edota jainkosa bat izan liteke. Ninfen eta jainkosen ohiko ezaugarri bat da haien edertasuna, eta era berean, askotan esaten da haien lasaitasuna asaldatzen dutenekiko mendekua hartzen dutela, mendeku hori gehienetan heriotza izanik.

4. *Los ojos verdes* eta Bécquerren hainbat poemaren arteko erlazioa

“Obra berri baten ulertzeko, besteak beste, aurreko idazkiekin dituen harremanak behar dira ikertu” dio Euskaltzaindiaren Literatura Terminoen Hiztegiko testuartekotasunari buruzko azalpenaren hasierak (Casenave, 2008). Testuen arteko harreman horiek agerikoagoak edo ezkutukoagoak izan daitezke eta maila desberdinean gerta daitezke mota edota garai desberdinetako testuen artean. Kasu honetan, kondairak Bécquerren errima batzuekin duen harremanak itzulgaia hobeto ulertzen lagundu dezake.

Alde batetik, hainbat poematan deskribatzen du Bécquerrek aintzirako dama izan litekeena. XI. erriman hiru emakume deskribatzen dira eta poetak hirugarrenari dei egiten dio. Emakume hori kondairako aintzirako emakume misteriotsua bezala ametsetakoa da, ukiezina, laino eta argiz egina eta gorpuzgabea (“incorpórea”). Emakume horren antza du XV. erriman deskribatzen den izakiak, hau ere ukiezina baita eta lainoz egina baitago, gainera, kasu honetan aintzira batekin lotuta dago (“como la llama, como el sonido, / como la niebla, como el gemido / del lago azul.”). XII.ean, begi berdedun emakume bat deskribatzen da, zeina kondairakoa izan daitekeen, hark bezala ile horia eta azal argia baititu.

Bestalde, XIV. erriman poetak begirada liluragarri batekiko sentitzen duen erakarpena deskribatzen du, eta hori izan liteke kondairan Fernandok sentitzen duena. Era berean, errimaren amaieran adierazten du badaudela ibiltaria heriotzera eramaten duten arima-argiak (“fuegos fatuos”) eta poemako begiek poeta nonbaitera daramate, baina ez daki

nora; amaiara honetan ulertu daiteke begiek poeta heriotzera eramaten dutela, kondairaren amaierarekin bat eginez, izan ere, kondairan begien eta arima-argien konparaketa ere egiten da, eta heriotza ulertarazten den arren, ez da berariaz esplizitatzen.

5. Euskaratutako Bécquerren lanak

Bécquerren lau kondaira itzuli dira orain arte: *Deabruaren gurutzea (La cruz del diablo)* Jon Beranoagirrek 1998an argitaratua, Desclée de Brower argitaletxean, Mikoleta bildumaren barruan; *Ilargi-errainua (El rayo de luna)* Manu López Gasenik 1999an argitaratu zuen Infomart argitaletxean (Legutiano), eta bertan, lanaren izenburua daraman kondairaren itzulpenaz gain, *Sorrera (Creación)* itzulpena ere biltzen du; eta *Hosto lehorrak (Las hojas secas)* Ainhoa Egurenek 2014an on-line argitaratua, berbaratza.wordpress.com web orrian. Horiez gain, Bécquerren poemen itzulpenak argitaratu ziren *Euzkadi* aldizkarian 1935ean eta 1930ean (itzultzaileak: Jautarkol eta Gireuja), eta 1964an Santi Onaindiak Bécquerren XIII. errima itzuli zuen *Olerti* aldizkarian.

Aipatzekoa da itzulpen guzti hauek jatorrizkoak argitaratu eta askoz beranduago egin zirela, batez ere kondairen itzulpenak. Gainera, poemen eta kondairen itzulpenen artean ere badago hainbat hamarkadako aldea. Errimak lehenago itzuli izanak pentsarazi dezake horiek izan zirela ezagunagoak eta garrantzitsuagoak garai hartan, eta horrek zentzu du, kontuan hartuta gaur egun ere hainbat kritikarik uste dutela Bécquerrek, Rosalía de Castrorekin batera, eman ziola hasiera poesia garaikideari (Rubio Jiménez, d.g.).

Kondairei dagokienez, kontuan hartu behar da lehenengo itzulpena euskara ikasleei zuzendutako bertsio moldatu bat dela; gainera, Lopez Gaseniren itzulpenaren hitzaurrean dioenez, kondairen helburuetako bat mezu moral bat transmititzea da (Lopez Gaseni, 1999). Beraz, irakaskuntzarekin nolabait lotuta daude kondairen itzulpenak eta pentsa liteke euskararen normalizazioarekin batera sortu zen irakurgaien behararen eraginez egindako itzulpenen taldean sartu daitezkeela; hala ere, talde horretako itzulpenak baino beranduagoak direnez, gerta daiteke itzultzaileak jatorrizko testuaren erakargarritasunaren eraginez hartu izan itzulpen hori egiteko erabakia, aipatutako azken kondairaren itzulpenaren sarreran adierazten den bezala (Eguren, 2014).

6. Itzultzen hasi aurreko hausnarketa

Testu hau itzultzerakoan kontuan hartu beharreko alderdi bat da beste garai batean idatzi zela, eta irakurle posibleak ere desberdinak izango direla. Egunkari batean argitaratutako kondaira zenez, egunkariaren irakurle orok irakur zezakeen kondaira, eta, beraz, ezagutza maila desberdinetako pertsoneri zuzenduta zegoela pentsa daiteke, baina guztiek izango zituzten XIX. mendeko hizkuntza ohiturak. Itzulpena ere irakurle orokorrari zuzenduta egon arren, irakurlego horrek XXI. mendeko hizkuntza ohiturak izango ditu.

Irakurlego berri horri Bécquerren kondaira transmititzeko aukera desberdinak daude: posible da testua garai hartan mantentzea eta orduko hizkuntza imitatzen saiatzea, baina, era berean, zilegi izan daiteke testua gaurkotzea eta itzulpena egiten deneko garaira moldatzea. Aukera horiez gain, kasu honetan gogoan izan behar da kondaira XIX. mendean idatzi bazen ere, Erdi Aroan girotuta dagoela. Horregatik, pentsatzekoa da, argitaratu zenean ere izango zuela nolabaiteko antzinako kutsua, kondairetan ohikoa baita kontakizuna iraganean kokatzea giro misteriotsua sortzeko.

Bestalde, askotan beste garai bateko testuak irakurtzerakoan irakurleak ulertzeko zailtasunak izan ditzake erabiltzen den hizkera dela eta, baina kasu honetan jatorrizkoaren hizkera oraindik gaur egun ere ulergarria da eta ez du ikuspuntu horretatik zailtasun berezirik aurkezten. Ulergarritasun hori mantentzea ere garrantzitsua dela pentsa daiteke itzulpenaren irakurleek jatorrizkoaren gaur egungo irakurleek bezala jaso dezaten testua.

Alderdi hauek kontuan hartuta, honako erabaki hau hartu nuen itzultzen hasi aurretik: gaur egungo irakurleentzat ulergarria izango den hizkera erabiltzea antzinako elementuak guztiz neutralizatu gabe, hau da, posible izanez gero gaur egungo testua ez dela erakusten duten elementuak era ulergarrian mantentzea.

7. Itzulpena

BEGI BERDEAK

Duela askotik idatzi nahi nuen izenburu hau zeraman zerbait.

Gaur horretarako aukera izan dudanez, lehenengo orrian letra handiz titulua idatzi eta jarraian luma aske utzi dut, paper gainean hegan.

Uste dut noizbait ikusi ditudala kondaira honetan margotutakoak bezalako begiak. Beharbada ametsetan, baina nik ikusi ditut. Ziur nago ezingo dudala zehaztasunez deskribatu nola ziren argitsuak, gardenak, euri tantak bezalakoak, udako ekaitzaren ostean zuhaitzetako hostoetan behera irristatzen diren euri tantak. Dena dela, irakurleek irudimena erabiliz ulertuko nautela espero dut, egunen batean margotuko dudana margolanaren zirriborroa izan daitekeen honetan.

— I —

— Zauriturik doa oreina..., zauriturik; argi dago. Odolaren arrastoa ikus daiteke mendiko sasien artean, eta legeltxorren gainetik salto egin duenean hankek huts egin diote... Gure jaun gaztearen lehenengo kolpea beste batzuek ematen duten azkena da... Ehizaldiak antolatzen, ez dut berrogei urtean hoberik ikusi... Baina, San Saturio Soriako patroiatatik!, moztu iezaiozue bidea arte horietan, xaxatu txakurrak, jo turutak, egin putz gibelak ahotik bota arte eta sartu zaldiei ezproi laurdena mehaketan; ez al duzue ikusten Makalen iturritantz doala eta hil baino lehen heltzen bada galdutzat eman dezakegula?

Moncayoko arroek oihartzunekin errepikatu zuten behin eta berriz turuten orroa, askatutako ehiza-txakurren zalapartak eta morroien ahotsek amorru berriz egin zuten durundi, eta gizon, zaldi eta txakur aldra nahasia Iñigok, Almenarreko markesen ehiza-igurainak, adierazitako tokira zuzendu zen abereari bidea mozteko egokiena baitzen.

Baina alferrikakoa izan zen. Erbi-txakur bizkorrena arteetara iritsi zenean, arnasestuka eta ahutzak lerdez beteta zituela, oreinak jada igaroak zituen zuhaixkak jauzi batez, gezi batek bezain azkar, eta sasi artean galdu zen iturritantz zihoan bidexkan.

— Geldi! Denok geldi! — egin zuen deiadar Iñigok. — Jaungoikoak erabakia zuen alde egin behar zuela.

Zaldizkoak gelditu egin ziren, eta turutak mututu, eta erbi-txakurrek, marmarka, arrastoa jarraitzeari utzi zioten ehiztarien aginduz.

Momentu horretan egin zuen bat taldearekin festako heroiak, Fernando Argensolakoak, Almenardarren oinordekoak.

— Zertan ari zara? — zerbitzariari oihu egin bitartean harridura azaleratzen zen haren aurpegian, haserrez garretan zituen begiak. — Zertan ari zara, ergel hori? Ehizakia zaurituta dago, nire eskutik hilko den lehena da, eta arrastoa utzi eta ihes egiten lagatzen

diozu baso barrenean hil dadin! Otsoen oturuntzarako oreinak hiltzera etorri naizela uste duzu ala?

— Jauna — hortz artean egin zuen marmar Iñigok, — ezinezkoa da hemendik aurrera jarraitzea.

— Ezinezkoa! Zergatik?

— Bidexka hori — jarraitu zuen zerbitzariak — Makalen iturrira doalako; Makalen iturria, bertako uretan gaizkiaren izpiritu bat bizi da. Haren korrontea uhertzen duenak garesti ordaintzen du ausarkeria. Abereak igaroko zituen jada iturriaren ertzak; nola igaroko ditu berorrek, berorren gainera zoritxar ikaragarrikeri erakarri gabe? Ehiztariok Moncayoko errege gara, baina zerga bat ordaintzen duten erregeak. Iturri misteriotsuan babes hartzen duen ehizakia, ehizaki galdua da.

— Ehizaki galdua! Lehenago galduko dut nik nire gurasoen jaurerria, eta lehenago galduko dut nire arima Satanasen menpe, orein horri ihes egiten uztea baino, nire azkonak zauritu duen bakarria, nire ehiza txangoen lehen fruitua... Ikusten?... Ikusten?... Oraindik antzeman daiteke tarteka hemendik..., hankek huts egiten diote, haren korrikaldia laburtzen ari da; utz nazazu..., utz nazazu...; askatu brida hori edo hautsetan iraulkatuko zaitut... nork daki ez ote dudan harrapatuko iturrira heltzeko aukera izan baino lehen? Eta heltzen bada, pikutara iturria, haren garbitasuna eta bertako biztanleak. Arre! *Tximista!* Arre, ene zaldia! Harrapatzen baduzu zure urrezko uhalak nire bitxiko diamantez apaindu ditzaten aginduko dut.

Zaldia eta zaldizkoa urakan baten antzera abiatu ziren.

Iñigok begiradarekin jarraitu zituen sastraka artean galdu ziren arte; jarraian begiak ingurura itzuli zituen; bere antzera, beste guztiak geldi-geldi eta atsekabeturik zeuden.

Azkenean zerbitzariak ozenki esan zuen:

— Jaunak, zuek ikusi duzue, haren zaldiaren oinetan hiltzera arriskatu naiz aurrera jarrai ez zezan. Nire eginbeharra bete dut nik. Ausardiak ez du ezertarako balio deabruarekin. Honaino heltzen da ehiztaria baleztarekin; hemendik aurrera, saia dadila kapilaua isipuarekin.

— Ene jauna, zurbil dago; goibel eta betilun dabil; zer du berorrek? Abere zaurituari segika Makalen iturrira heldu zen egun hartatik, niretzat zoritxarrekoa izan zen egun hartatik, badirudi sorgin gaizto batek bere sorginkeriekin maskaldu duela.

Dagoeneko ez doa mendira ehiza-txakur zalapartatsuek jarraitzen dutelarik, eta berorren tronpen joaldiek ez dute oihartzunik iratzartzen. Berorren atzetik segika dituen hausnarketa horiekin bakarrik, goizero-goizero hartzen du balezta sasi-artera abiatzeko eta han egoten da eguzkia ezkutatu arte. Eta gauaren iluntasuna heldu eta gaztelura zurbil eta nekatuta itzultzen denean alferrik bilatzen dut berorren soin-uhalean ehiza-harrapakinik. Zerk mantentzen du berori hain denbora luzez gehien maite dutenengandik urrun?

Iñigok hitz egin bitartean, Fernandok, bere ideietan murgilduta, pentsatu gabe ezpalak ateratzen zituen ebanozko zizeilutik mendiko aiztoarekin.

Isilaldi luze batez aiztoak egur leunduan labantzean egiten zuen kirrinka bakarrik entzun zitekeen; jarraian, gazteak zerbitzariari honako hau adierazi zion, haren hitz bakar bat ere entzun izan ez balu bezala:

— Iñigo, zu zaharra zara, zuk ezagutzen dituzu Moncayoko gordeleku guztiak, mendiaren hegalean bizi izan zara piztiei jarraika eta hara-honaka ehiza ibilaldietan tontorrera igo zara behin baino gehiagotan, esadazu: aurkitu al duzu menturaz bertako harkaitzen artean bizi den emakume bat?

— Emakume bat! — esan zuen harriturik zerbitzariak, begiak zabal-zabalik jaun gazteari begira.

— Bai — erantzun zion honek; — bitxia da gertatzen zaidana, oso bitxia... Sekretua betiko gorde nezakeela uste nuen, baina ezin dut; gainezka dut bihotza eta aurpegian igartzen zait. Esango dizut, bada, zer den... Zuk lagunduko didazu izaki hori inguratzen duen misterioa argitzen, dirudienez, niretzako bakarrik existitzen den izakia, inork ez baitu ezagutzen, inork ez baitu inoiz ikusi, eta inork ezin baitit haren berri eman.

Zerbitzariak, ezpainak zabaldu gabe, aulkia herrestatu zuen jaunaren zizeiluaren albora, begirada ikaratua gaztearengandik aldendu gabe. Azken honek, ideiak bateratu ostean, honela jarraitu zuen:

— Zure zorigaiztoko iragarpenak kontuan hartu gabe Makalen iturrira heldu nintzen egun hartatik, iturriko urak zeharkatu eta zure sineskeriak ihes egin zezan utziko zukeen oreina harrapatu nuen egunetik, bakardade nahiak bete zuen nire arima.

Zuk ez duzu toki hura ezagutzen. Begira, harkaitz bateko zuloan ezkutatuta sortzen da iturria eta tantaz-tanta labainduz jausten da haren sehaskaren inguruan jaiotzen diren landareen hosto berde kulunkarietatik. Tanta horiek, zeinak jausterakoan urre puntuen antzera dir-dir egiten duten eta instrumentu baten noten antzeko soinua duten, belar artean elkartzen dira, eta, xuxurlaka, xuxurlaka, erleek lore artean hegan sortzen duten hots baxuaren gisako soinuarekin urruntzen dira hondar artean, eta ibilgu bat eratzen dute, eta haien bideari aurre egiten dioten oztopoen aurka borrokatzen dute, eta beren baitan egiten dute atzera, eta saltoka, eta ihesi, eta korrika dabilta, batzuetan barrezka, bestetan hasperenka, aintzirara erori arte. Aintziran deskriba ezinezko zurrumurru batekin erortzen dira. Aiene, hitz, izen, kanta, ez dakit nik zer entzun dudan zurrumurru horretan, harkaitz gainean bakarrik eta kezkatuta eseri naizenean; harkaitz horren oinetara egiten dute salto iturri misteriotsuko urek urmael sakon batean geratzeko, haren azal geldia arratsaldeko haizeak ia izurtzen ez duelarik.

Dena da handia han. Bakardadea toki horietan bizi da mila zurrumurru ezezagunekin eta adierazi ezinezko tristuraz erotzen du arima. Makalen zilarrezko hostoetan, harkaitzen zuloetan, uraren uhinetan, Naturako izpiritu ikusezinek hitz egiten digutela dirudi, gizonaren izpiritu hilezkorrean anaia bat aurkitzen dutelarik.

Goiza argitzean balezta hartzen eta mendirantz irteten ikusten ninduzunean, ez zen inoiz sastraka artean ehiza bila galtzeko, ez; iturriaren ertzean esertzera nindoan, haren uhinetan zerbait bilatzera... ez dakit zer, zorakeria bat! Haren gainetik *Tximistarekin* salto egin nuenean, hondoan zerbait bitxia ikusi nuela iruditu zitzaidan..., oso bitxia...: emakume baten begiak.

Beharbada eguzki izpi bat izango zen, aparrean iheskor bihurritu zena; beharbada hondoko alga artean dauden lore horietako bat, zeinaren kalizek esmeraldak diruditen..., ez dakit; nire begietan finkatu zen begirada bat ikusi nuela iruditu zitzaidan; eta gauzatu ezin zen desio zentzugabe bat piztu zuen nire bularrean: horrelako begiak zituen pertsona bat aurkitzeko desioa.

Haren bila joaten nintzen egunero-egunero toki hartara.

Azkenik, arratsalde batez... amets baten jostailu nintzela uste izan nuen...; baina ez, egia da; askotan hitz egin diot, zuri orain hitz egiten dizudan moduan...; arratsalde batez nire tokian eserita aurkitu nuen, aintzirara heltzen ziren eta ur-azal distiratsuan kulunkatzen ziren arropak zeramatzala, inoiz izan den emakumerik ederrena. Haren ilea urrea bezalakoa zen; betileek argi harien antzera egiten zuten dir-dir, eta betile artean geldiezinik zebiltzan nik jada ikusiak nituen begi-nini haiek..., bai, izan ere emakume haren begiek ezinezko kolorea zuten; begi...

— Berdeak! — esan zuen Iñigok ikaraz beterik, salto batez aulkian tentetuz.

Fernandok, aldiz, harrituta begiratu zion esan behar zuena bukatu baitzuen, eta estutasuna eta poztasuna nahastuz galdetu zion:

— Ezagutzen al duzu?

— Ez, ez — esan zuen zerbitzariak — Jainkoak libra nazala hura ezagutzeaz! Baina nire gurasoek, toki hartara joatea debekatu zidatenean, mila aldiz esan zidaten hango uretan bizi den izpiritu, intxixu, deabru edo emakumeak kolore horretako begiak dituela. Eta erregutzen diot, munduan gehien maite duenagatik, ez dadila berori Makalen iturrira itzuli. Egun batean edo bestean harrapatuko du bertako izakiaren mendekuak, eta heriotzarekin ordainduko du iturriko uhinak lohitu izanaren delitua.

— Gehien maite dudanagatik!... — esan zuen gazteak ahopean irribarre triste batekin.

— Bai — jarraitu zuen agureak: — berorren gurasoengatik, berorren ahaideengatik, zeruak berorren emazte gisa bidaliko dionaren malkoengatik, berori jaiotzen ikusi duen zerbitzari honengatik...

— Ba al dakizu zuk zer den mundu honetan gehien maite dudana? Ba al dakizu zergatik emango nituzkeen nire aitaren maitasuna, bizia eman zidanaren musuak, eta lurreko emakume guztiek gorde dezaketen amodioa? Begirada batengatik, begi horien begirada bakar batengatik... Nola utziko diot nik haiek bilatzeari!

Hitz horiek halako indarrarekin esan zituen, non Iñigoren betazalean dardarka zegoen malkoa isil-isilik masailean behera labaindu zitzaion, ahots ilunez honako hau zioen bitartean:

— Bete bedi zeruaren borondatea!

— Nor zara zu? Zein da zure sorterrria? Non bizi zara? Egunero-egunero nator zure bila, eta ez dut ikusten hona ekartzen zaituen zaldia, ezta zure litera gidatzen duen zerbitzaririk. Hautsi ezazu behingoz gau ilun batean bezala biltzen zaituen misteriozko beloa. Nik maite zaitut, eta aitoren alaba edo bilau, zurea izango naiz betiko...

Eguzkia ezkutatua zen mendi-tontorraren atzean; itzalak urrats luzeak emanaz jaisten ziren mendi-hegalean behera; haize leunak ulu egiten zuen iturriko makalen artean, eta behe-lainoak, pixkanaka-pixkanaka aintziraren azaletik altxatuz, ertzetako haitzak biltzen zituen.

Haitzetako baten gainean, aintziraren hondora erortzeko zorian zegoela zirudien haitz baten gainean zegoen Almenardarren oinordekoa; haren irudia ur-azalean islatzen zen, dardarka, bere maitale misterioitsuaren oinetan belauniko, haren izatearen sekretua eskuratu nahian, alferrik.

Emakume ederra zen, ederra eta azal argikoa, harzurizko estatua bat bailitzan. Kizkur bat erortzen zitzaion sorbaldan behera, beloaren izurren artean irrist eginez, hodeiak igarotzen dituen eguzki izpi baten antzera, eta betile horailek inguratuta egiten zuten dir-dir haren begi-niniek, urrezko bitxi bateko bi esmeralden modura.

Jaun gazteak hitz egiten bukatu zuenean, emakumearen ezpainak mugitu egin ziren hitz batzuk ahoskatzera balioa bezala; baina hasperen bat baino ez zuen bota, hasperen ahula, sumindua, ihi artean hildakoan haize leuna bultzatzen duen uhin arinarena bezalakoa.

— Ez didazu erantzuten! — esan zuen Fernandok, bere itxaropena engainatua ikusirik. — Zutaz esan didatena sinets dezadan nahi al duzu? O! Ez... hitz egidazu; maite nauzun jakin nahi dut; maitatu zaitzakedan jakin nahi dut, emakumea zaren...

— Edo deabrua... Eta horrela bada?

Jaun gazteak zalantza egin zuen momentu batez; izerdi hotzak bere gorputz-adarrak zeharkatu zituen; begi-niniak zabaldu egin zitzaizkion emakume haren begi-ninietan indar handiagoz finkatuz, eta haien distira fosforikoak liluratuta, zoratuta ia, amodioak eroturik esan zuen:

— Horrela balitz..., orain maite zaitudan bezala maitatuko zintuzket, nire patua zu maitatzea delako, bizitza honetatik haratago, haratago ere ezer baldin badago.

— Fernando — esan zuen orduan izaki eder hark, musikaren antzeko ahotsarekin, — zuk maite nauzun baino are gehiago maite zaitut nik; ni, izpiritu purua izanik, hilkor baten mailara jaitsi naiz eta. Ez naiz lurrean bizi direnen gisako emakume bat; zuk merezi duzun emakumea naiz, beste gizonak baino hobea baitzara. Ur hauen hondoan bizi naiz; haien modura gorpuzgabe, iheskor eta garden, haien zurrumurruekin hitz egiten dut eta haien izurrekin kulunkatzen naiz. Nik ez dut zigortzen bizi naizen iturriko urak asaldatzen dituen; lehenago nire maitasunarekin saritzen dut, herri xehearen sineskerien gainetik dagoen hilkor bat baita, nire maitasun bitxi eta misteriotsua ulertzeko gai den maitale bat.

Emakumeak hitz egin bitartean, jaun gaztea, haren edertasun fantastikoari so eginez liluratuta, iturri ezezagun batek erakarrita bezala, geroz eta gehiago gerturaten zen haitzaren ertzera. Begi berdedun emakumeak honela jarraitu zuen:

— Ikusten duzu aintzirako hondo garbia, ikusten dituzu hondoan astintzen diren hosto berde luzedun landareak?... Haiak emango digute esmeralda eta koralezko ohe bat... eta nik... izenik gabeko zorientasuna emango dizut, inork eman ezin dizun eta liluratuta igaro dituzun orduetan amestu duzun zorientasuna... Zatoz; lainoa gure bekoki gainean dago lihozko errezel bat bailitzan...; uhinek ahots ulertezinekin dei egiten digute; makal artean haizeak maitasun ereserkiak hasi ditu; zatoz..., zatoz...

Gauak bere lehen itzalak zabaltzen zituen; ilargiak ñirñir egiten zuen aintziraren azalean; haizearen putzek lainozko zurrumbiloak sortzen zituzten, eta begi berdeek dir-dir egiten zuten iluntasunean, ur kutsatuaren azal distiratsuan korrika doazen arima-argien antzera... Zatoz..., zatoz... Hitz horiek Fernandoren belarrietan burrunba egiten zuten arao baten gisara. Zatoz... Eta emakume misteriotsuak amildegi ertzera deitzen zion, amildegian zegoen bera, airean, eta musu bat eskaintzen ziola zirudien..., musu bat...

Fernandok urrats bat eman zuen harengana...; beste bat..., beso argal eta malguak lepo inguruan lotzen zitzaizkiola nabaritu zuen, eta sentipen hotz bat igarri zuen bere ezpain beroetan, elurrezko musu bat..., eta zabu egin zuen..., eta oinen azpiko lurra galdu eta uretara erori zen zurrumuru gor eta goibel batekin.

Urak argi-zipriztinetan salto egin eta Fernandoren gorputzaren inguruan itxi zen, eta zilarrezko biribilak zabalduz joan ziren, zabalduz ur ertzean azken arnasa eman arte.

8. Itzulpenaren iruzkina

Kondaira hau itzultzea ez da erraza izan hainbat arrazoiengatik. Itzulpen-prozesuko zailtasun horietako batzuei aurre egiterakoan egindako hausnarketak azalduko ditut jarraian, hain zuzen ere, honako alderdi hauei lotutakoak: tratamendua, lexikoa (ehiza-giroari lotua), esaldi luzeak, deskribapenak, eta letra etzana eta letra larriaren erabilera.

8.1. Tratamendua

Kondairan zehar, pertsonaiek elkarri hitz egiterakoan bi tratamendu desberdin erabiltzen dituzte. Fernandok Iñigori *tú* izenordainaren bidez hitz egiten dio eta Iñigok tratamendu bera erabiltzen du beste zerbitzariekin (*vosotros*, pluralean), baina Fernandorengana zuzentzean *vos* erabiltzen du.

Adibidez:

1. Taula: Tratamendu desberdinak

Fernandok Iñigori	Íñigo, tú que eres viejo; tú que conoces todas las guaridas del Moncayo, que has vivido en sus faldas persiguiendo a las fieras y en tus errantes excursiones de cazador subiste más de una vez a su cumbre, dime : ¿ has encontrado por acaso una mujer que vive entre sus rocas?
Iñigok Fernandori	Ya la res habrá salvado sus márgenes; ¿cómo la salvaréis vos sin atraer sobre vuestra cabeza alguna calamidad horrible?
Iñigok beste zerbitzariari	Señores, vosotros lo habéis visto , me he expuesto a morir entre los pies de su caballo por detenerle.

Tratamendu desberdinen erabilera honek gizarte maila eta botere desberdintasunak islatzen ditu: Iñigo Fernandoren zerbitzaria denez, begirunea eta errespetua erakutsi behar ditu hari hitz egitean, baina ez bere maila berean daudenei hitz egiterakoan. Fernandok, bestalde, ez du zertan errespetu edo begirune berezirik erakutsi behar bere zerbitzariari hitz egiterakoan.

Gainera, tratamendu horiek erakusten dute beste garai batean kokatzen dela istorioa. Hain zuzen ere, jatorrizko testuaren analisisian adierazi bezala, posible da Erdi Aroan kokatuta egotea eta horrekin bat egiten du *vos* izenordainaren erabilerak. Izan ere, dokumentatuta dago izenordain hori IV. mendetik erabili izan zela pertsona bakar bati begirunea

erakutsiz mintzatzeko eta ezaugarri hori XVI. mendean hasi zen galtzen *tú* izenordainarekin parekatuz (Alberdi Larizgoitia, 1996). Beraz, tratamendu horren erabilera kondaira idatzi baino lehenagokoa denez, pentsa daiteke Bécquerrek ere kutsu zahar edo antzinako bat eman nahi izan ziola kondairari.

Euskaraz hiru trataera erabili daitezke: hitanoa, zuketa eta beroriketa. Hitanoa da hiruretan lagunartekoena, eta errespetu falta izan daiteke pertsona nagusiago bati edota ezezagun bati hika hitz egitea. Zuketa garai batean errespetuzko forma izan zen arren, pixkanaka izaera hori galdu zuen eta beroriketa agertu zen begirunezko tratamendu gisa.

Hala ere, gaur egun, hitanoa eta beroriketa geroz eta gutxiago erabiltzen dira: ia euskalki guztietan galdu da hiru trataerak erabiltzeko ohitura, gehienetan bi bakarrik erabiltzen dira eta badaude zuketa bakarrik erabiltzen duten hiztunak (Alberdi Larizgoitia, 1996).

Itzulpenean, jatorrizkoan bezala, bi trataera desberdin erabili dira gizarte mailen arteko desberdintasunak eta botere-harremanak islatzeko: *zu* eta *berori* erabili dira *tú* eta *vos* itzultzeko, hurrenez hurren.

Ez da hitanoa erabili informalegia izan daitekeelako: ez dago lagunarteko maila ez Fernando eta Iñigoren artean (gainera Iñigo nagusiagoa da), ezta, beharbada, Iñigo eta beste zerbitzarien artean (zeinak lagunak baino lankideak direla pentsa daitekeen). Gainera, gaur egun zuketak duen erabilera kontuan hartuta, pentsa daiteke irakurleari normalagoa egingo zaiola *zu tú*-ren mailan erabiltzea eta ez *vos*-en mailan. Eta beroriketaren erabilera kontuan hartuta, begirunea adierazteko trataera hori erabiliz, jatorrizkoak duen antzinako kutsua mantentzen da.

8.2. Lexikoa: ehiza-giroa

Batez ere kondairaren lehenengo atalean lexikoa ehiza giroari oso lotuta dago. Markes baten semea ehizara doa bere zerbitzariekin, eta zerbitzarien artean alde batetik *paje* delakoak aipatzen dira eta bestalde *montero mayor* delakoa dago (Iñigo izenekoa). Lehenengo kasuan, hitzak ez du arazo handiegirik sortzen nahiko orokorra delako; bigarrena, ordea, funtzio zehatz bat duen zerbitzaria da, hots, ehizaldien arduradun dena. Kontzeptu hori adierazteko hautatutako esamoldea, *ehiza-igurain*, gaur egun ez da oso ohikoa eta kondairan zehar hainbeste erabiltzen denez testua astundu dezake. Hortaz,

efektu hori saihesteko ideia sinplifikatu da *zerbitzari* erabiliz, baina jatorrizkoaren esanahia guztiz ez galtzeko lehenengo adierazi da zein zerbitzari mota den Iñigo.

Montero hitzaren lehen agerraldian, oraindik pertsonaiak aurkeztu gabe daudenez, garrantzitsua da zehaztea nor ari den hitz egiten eta zergatik dioen dioena. Iñigok ehiza-igurain gisa izandako esperientziak du garrantzia, beraz sinplifikatzeak ez du zentzurik. Hala ere, gaur egun irakurle askorentzat ezohikoa edota ezezaguna izan daitekeen termino bat erabiltzeak arreta erakarri dezake pasarte hainbesteko garrantzia ez duen elementu batera. Hori dela eta, informazioa ez galtzeko eta aldi berean arreta berezirik ez erakartzeko zerbitzari motaren orde z haren funtzioa erabili da:

En cuarenta años de **montero** no he visto mejor golpe...

Ehizaldiak antolatzen, ez dut berrogei urtean hoberik ikusi...

Hitzaren bigarren agerraldia Iñigoren aurkezpena denez, garrantzitsua da zer zerbitzari mota den zehaztea, nahiz eta aurrerantzean sinplifikatu irakurleak informazio hori eduki dezan:

Iñigo, el **montero mayor** de los marqueses de Almenar,

Iñigok, Almenarreko markesen **ehiza-igurainak**,

Ondorengo agerraldietan dagoeneko ehiza-iguraina aurkeztuta dagoenez eta bere funtzioa adierazita, posible da sinplifikatzea irakurketa errazagoa eta naturalagoa izan dadin, adibidez:

exclamó, dirigiéndose a su **montero**, y en tanto, ya se pintaba el asombro en sus facciones

zerbitzariari oihu egin bitartean harridura azaleratzen zen haren aurpegian

Era berean, zuzenean ehizarekin lotutako elementuak aipatzen dira, hala nola *res*, *pieza* edota *despojos de caza* ehizakia edo harrapakina izendatzeko, eta *lebreles* edota *jauría* ehiza-txakurrak izendatzeko (erbi-txakurrak, zehazki). Kasu horietan, nahiz eta ez izan gaur egun eguneroko bizitzan erabiltzen diren hitz ohikoenak, ez gaztelaniaz, ezta euskaraz ere, oro har ezagunak dira. Gainera, mendiari eta basoari buruz zuhaitz eta zuhaixka zehatzak izendatzeko hainbat termino erabiltzen dira (*zarzas*, *lentiscos*, *carrascas*, *matorrales* edota *maleza*); horien euskarazko ordain batzuk besteak baino

ezagunagoak edota erabiliagoak dira, baina ezezagunak direnak ere testuinguruagatik uler daitezke³.

Azkenik, ezezagunak izan daitezke zaldiei lotutako elementuak izendatzeko hitzak, hala nola *serreta*.

Si lo alcanzas, mando engarzar los diamantes de mi joyel en tu **serreta** de oro.

Harrapatzen baduzu zure urrezko **uhalak** nire bitxiko diamanteez apaindu ditzaten aginduko dut.

Serreta da zaldiari buruan (sudurraren gainean) jartzen zaion burdinazko euskarri bat (RAE), kasu honetan urrezkoa. Brida edo buru-uhalekin batera doanez, horien parte dela pentsa daiteke, nahiz eta material desberdinez eginda egon. Hala ere, kasu honetan garrantzitsuena ez da zein elementu den urrezkoa eta non jarriko dituen diamanteak, baizik eta oreina harrapatzearen luxuzko saria. Horregatik, jaunaren aberastasuna erakusten duten elementuak mantendu dira, hots, urrea eta diamanteak, zeinak uhaletan kokatu diren eta ez jatorrizkoan bezala *serreta* delakoan.

8.3. Esaldi luzeak

Gaztelaniatik euskarara itzultzerakoan zailtasun bat izan daiteke gaztelaniak esaldi luzeak eratzeko duen joera, adibidez, erlatibozko menpeko perpausak bata bestearen jarraian ezarriz. Euskaraz menpeko perpaus erlatibo arruntak, hots, *-(e)n* menderagailuaren bidez eratzen direnak, dagozkien izenaren aurrean ezartzen direnez, mendeko perpausa oso luzea bada atzerakarga arazoa sortzen da eta esaldia ulergaitz gerta daiteke. Hala ere, arazo horri aurre egiteko badaude erlatibozko perpaus posposatuak, hala nola *zein-* edo *bait-* menderagailuen bidez eratzen direnak (Euskaltzaindia, 1999).

Esate baterako, honako esaldi honetan erlatibo bidez gehitzen diren elementuak luzeak ez direnez, ez da atzerakarga handirik sortzen, beraz, ez dago arazorik euskarazko menpeko perpaus erlatibo arruntak erabiltzeko:

³ Hitzak ezagunak diren edo ez ziurtatzeko haien erabilera begiratu dut Egungo Testuen Corpusean. Aipatutako hitzen euskarazko ordain gehienak nahiko erabiliak ziren, *lentiscos* eta *carrascas* hitzenak ezik: lehenak, *legeltxor*, 15 agerraldi besterik ez zituen, eta bigarrenak, *arte*, agerraldi asko zituen baina beste esanahi batzuekin.

De todos modos, cuento con la imaginación de mis lectores para hacerme comprender **en este que** pudiéramos llamar boceto **de un cuadro que** pintaré algún día.

Dena dela, irakurleek irudimena erabiliz ulertuko nautela espero dut, egunen batean margotuko **dudan** margolanaren zirriborroa **izan daitekeen honetan**.

Beste esaldi honetan, ordea, erlatibo bidez gehitzen den mendeko perpausa nahiko luzea da eta, dagokion izenaren aurrean kokatuz gero, irakurketa zailduko luke:

De seguro no los podré describir tales cuales ellos eran, luminosos, transparentes, **como las gotas de la lluvia que** se resbalan sobre las hojas de los árboles después de una tempestad de verano.

Gainera, erlatibozko perpausak oro har esaldia astuntzen dutela esan daiteke, eta kasu honetan, hitzen jarioak duen garrantzian kontuan hartuta, erlatibozko perpausen ordeztan beste baliabide bat erabili da: perpaus nagusi bat eta mendeko perpaus bat erabili beharrean alborakuntza bidez lotutako bi perpaus bakun erabili dira.

Ziur nago ezingo dudala zehaztasunez deskribatu nola ziren argitsuak, gardenak, **auri tantak bezalakoak**, udako ekaitzaren ostean zuhaitzetako hostoetan behera irristatzen diren **auri tantak**.

Bestalde, gazteleraz erlatiboek gain juntadura eta alborakuntzaz baliatuz ere eraiki ohi dira esaldi luzeak, horren adibide da honako esaldi hau:

Aquellas gotas, **que** al desprenderse brillan como puntos de oro **y** suenan como las notas de un instrumento, se reúnen entre los céspedes, **y**, susurrando, susurrando, con un ruido semejante al de las abejas **que zumban** en torno de las flores, se alejan por entre las arenas, **y** forman un cauce, **y** luchan con los obstáculos **que se oponen** a su camino, **y** se repliegan sobre sí mismas, **y** saltan, **y** huyen, **y** corren, unas veces con risa, otras con suspiros, hasta caer en un lago.

Esaldi honetan, erlatibozko hiru menpeko perpaus basterik ez daude eta lehenak bakarrik sortu dezake atzerakarga arazoa mendeko perpausa bi esaldiz osatuta dagoelako. Itzulpenean *zein-* bidezko erlatibozko perpausa erabili da jatorrizkoaren egitura eta erritmoa mantentzeko. Izan ere, jatorrizkoan juntadura eta alborakuntza bidez lotutako perpausak era berean lotu daitezke euskaraz jarioa eta sortzen duen efektua gehiegi aldatu gabe.

Tanta horiek, **zeinak** jausterakoan urre puntuen antzera dir-dir egiten **duten eta** instrumentu baten noten antzeko soinua **duten**, belar artean elkartzen dira, **eta**, xuxurlaka, xuxurlaka, erleek lore artean hegan sortzen **duten** hots baxuaren gisako soinurekin urruntzen dira hondar artean, **eta** ibilgu bat eratzen dute, **eta** haien bideari aurre egiten **dioten** oztopoen aurka borrokatzen dute, **eta** beren baitan egiten dute atzera, **eta** saltoka, **eta** ihesi, **eta** korrika dabilta, batzuetan barrezka, bestetan hasperenka, aintzirara erori arte.

Hala ere, honako beste esaldi honetan ezin izan da jatorrizkoaren egitura mantendu esaldi barneko hitzen ordena desberdinaren ondorioz:

Sobre una de estas rocas, **sobre** una que parecía próxima a desplomarse en el fondo de las **aguas**, **en cuya** superficie se retrataba, temblando, el primogénito de Almenar, de rodillas a los pies de su misteriosa amante, **procuraba** en vano arrancarle el secreto de su existencia.

Gaztelaniaz *sobre* preposizioa hasieran doanez, aurreko esaldiaren azken elementuarekin erlazionatu daiteke hurrengo esaldia; euskaraz, ordea, *gainean* esaldiaren amaieran doanez, hurrengo perpausa menderakuntza bidez lotuz gero, erlatiboaren aurrekaria haitza dela dirudi eta ez aintzira. Hortaz, euskaraz esaldia bitan banatu da, eta horrek puntuazioa aldatzeko beharra sortu du.

Haitzetako baten **gainean**, aintziraren hondora erortzeko zorian zegoela zirudien haitz baten **gainean zegoen** Almenardarren oinordekoa; haren irudia ur-azalean islatzen zen, dardarka, bere maitale misteriotsuaren oinetan belauniko, haren izatearen sekretua eskuratu **nahian**, alferrik.

8.4. Deskribapenak: elementu bisualak eta soinua

Kondaira honen giro misteriotsua sortzeko funtsezkoa da elementu bisuala: honi esker giro ilun, triste eta lainotsua sortzen da eta horrek misterio mundura gidatzen du irakurlea. Are gehiago, iluntasun horrek Fernandok bere gain duen sorginkeria irudikatzen duela esan liteke, giro ilun, lauso eta misteriotsua ez baita lehenengo atalean ageri, baizik eta bigarrenetik aurrera, Fernandok iturriko mugak zeharkatu ostean.

Era beren, mundu ilun horrekin kontrastatzen duten argi puntu batzuk daude, dir-dir egiten duten elementuekin irudikaturik. Argitasun tarte horiek emakume misteriotsuari

lotuta daude eta haren izaera islatzen dute: mundu ilun horretatik kanpoko, berak dioen bezala “izpiritu puru” bat baita.

Beraz, esan liteke argitasunak eta iluntasunak istorioko bi pertsonaia nagusiak irudikatzen dituztela, eta deskribapenetan elementu bisual horiek islatzea oso garrantzitsua da. Gainera, amaiera aldera bi pertsonaiak elkartzen direnean, argitasuna eta iluntasuna ere nahastu egiten dira kontrastea nabarmenagoa bihurtuz:

La noche empezaba a extender sus **sombras**; la luna rielaba en la superficie del lago; la **niebla** se arremolinaba al soplo del aire, y los ojos verdes brillaban en la **oscuridad** como los fuegos fatuos que corren sobre el haz de las aguas infectas...

Gauak bere lehen **itzalak** zabaltzen zituen; ilargiak ñirñir egiten zuen aintziraren azalean; haizearen putzek **lainozko** zurrumbiloak sortzen zituzten, eta begi berdeek dir-dir egiten zuten **iluntasunean**, ur kutsatuaren azal distiratsuan korrika doazen arima-argien antzera...

Deskribapenetako beste elementu garrantzitsu bat da soinua: lehenengo atalean ehiza giroko zalapartak eta zaratek giroa osatzen laguntzen dute, ez bakarrik aipatzen diren zaraten bidez, hala nola zakurren zaunkak edota turuten orroak, baizik eta baita harridura ikurren bidez ere, zeinek elkarrizketei indarra ematen dieten. Hori dela eta, elementu horiek ondo islatzea garrantzitsua da.

Elementu bisualarekin gertatzen den bezala, soinuari dagokionez ere kontrastea dago aipatutako hasierako zarata horien eta hurrengo ataletan ageri diren isiltasun ugarien artean; eta atal horietan bisualki lainoaren bidez eratzen den lausotasuna zurrumuru, xuxurla eta antzeko soinuek osatzen dute. Horrek erakusten du soinuak alderdi bisualari laguntzen diola eta, horregatik, hark bezala garrantzia du; hain zuzen ere, esan liteke isiltasunek eta soinu zehaztugabeek, giro ilun eta lainotsuak bezala, Fernandok bere gain duen sorginkeria islatzen dutela.

8.5. Letra larria eta etzana

Aipatzekoak dira kondaira honen jatorrizko bertsioan letra larriaren eta letra etzanaren erabilerak, oro har ohiko arauak bete arren, pare bat kasutan erabilera berezia egiten baita.

Letra etzana zaldiaren izenean soilik erabiltzen da. Orokorrean izen propioak ez dira letra etzanez idazten dagoeneko letra larriak erakusten duelako izen berezia dela (Fundéu, 2017). Hortaz, pentsa daiteke jatorrizkoan letra etzana erabiltzen dela arreta erakartzeko edo hitz horri garrantzi berezia emateko, eta euskaraz ere efektu bera lortzeko letra etzana mantendu da nahiz eta ez izan letra etzanaren ohiko erabilera.

¡Sus! ¡*Relámpago!* ¡Sus, caballo mío!

Arre! *Tximista!* Arre, ene zaldia!

Letra larriari dagokionez, nahiz eta *álamo* izen arrunta izan, izen propio gisa erabiltzen da iturriaren izenean eta letra larriz adierazten da. Erabilera hori zuzena da, baina *naturaleza* hitzari dagokionez, gaur egungo arauak ez dute adierazten letra larriz hasi beharko lukeenik. *Ortografía de la lengua española* (Real Academia Española & Asociación de Academias de la Lengua Española, 2010) lanean adierazten denez, gaur egun, arauen arabera okerra bada ere, gaztelaniaz sarritan erabiltzen da letra larria tradizionalki horrela idazten ziren hitzetan (hala nola *naturaleza*, *historia* edota *humanidad*). *Mayúscula de relevancia* deitzen zaio erabilera honi eta helburua da letra larriaren bidez hitz edo kontzeptu baten garrantzia edota bikaintasuna adieraztea, baina ez da erabilera gomendagarria guztiz subjektiboa delako eta ez dagoelako batasunik.

Euskaraz ordea, Euskara Batuaren Eskuliburuan ez da erabilera berezi hori aipatzen; hala ere, itzulpenean letra larriaren erabilera mantendu da jatorrizkoak hitz horri ematen dion garrantzia mantentzeko.

que nos hablan los invisibles espíritus de la Naturaleza

Naturako izpiritu ikusezinek hitz egiten digutela

9. Ondorioak

Lan honetan literatur itzulpena landu dut, *Los ojos verdes* kondaira itzuli eta itzulpen prozesuari buruz hausnartuz. Hala ere, kontuan hartu behar da literatur itzulpenaren barruan testu mota oso desberdinak aurkitu daitezkeela, eta horietako bakoitza itzultzeko estrategia desberdinak erabiltzen direla, testu motaz gain gaia, hartzailea, testuingurua eta beste zenbait alderdi kontuan hartuz.

Lan honen bidez ikusi dut oso garrantzitsua dela itzultzen hasi aurretik jatorrizko testua aztertzea hura osatzen duten elementuak identifikatzeko eta horrela jakiteko zer den xede testuak transmititu behar duena. Adibidez, lehenengo ikustaldian iruditu dezake Fernandoren istorioa nahiko simplea dela: debekatutako zerbait egin eta horren eraginez zigorra jasotzen du. Baina, sakonago aztertuz, maitasuna eta heriotzaren arteko erlazioa agertzen da, baita kondaira-giro misteriozkoa eraikitzeke erabiltzen diren baliabideak ere, hala nola istorioa beste garai batean kokatzea edota egoera imajinatzen laguntzen duten deskribapen xeheak.

Azterketa horrek ahalbidetu dit lehentasunak ezartzea horien arabera itzulpen erabakiak hartzeko. Hau da, lan honetan ikusi dut, hasieran estrategia orokor bat finkatuz gero, horren arabera neurtu daitekeela zein den itzulpen posibleen artean momentuko beharretara hobekien egokitzen dena. Gainera, garrantzitsua da erabaki horiek kontzienteki hartzea, eta horren adibide dira lan honetan azaldutako hausnarketak.

Adibidez, hautatutako itzulgaia XIX. mendeko testu bat da, baina istorioa Erdi Aroan kokatuta dago, beraz, kontakizunak baditu iraganekoa dela erakusten duten markak. Horrelako testuen aurrean nola jokatu pentsatzerakoan, beharbada ohikoena bi aukera nagusien artean bat hautatzea da: testua gaurkotu edo iraganeko hizkera imitatu. Hala ere, ikusi dut ez dela beti aukera horietako bat hautatu behar, baizik eta posible dela bi muturren arteko erdiko puntu bat bilatzen saiatzea: kasu honetan, kondaira bat izanik istorioa iraganeko kokatzeak misteriozko giroa sortzen laguntzen du, baina gaur egungo irakurleentzako ulergarria izan behar bada, gaur egungo hizkerara hurbildu beharko da. Bi muturren arteko oreka mantentzea izan da itzulpen honen erronketako bat.

Bestalde, kontuan hartu behar da itzulpen prozesuan zehar egindako hautuak guztiz subjektiboak direla. Hau da, hasieran erabaki nuen ulergarritasunari garrantzi ematea eta gaur egungo irakurlearentzat ulergarria izango den itzulpen bat egitea; baina irizpide hori guztiz subjektiboa da, nire ikuspuntuaren menpe dagoelako eta itzulpen enkargu errealik izan ez dudanez, nik neuk irudikatu ditutako itzulpenaren irakurle posibleen nolakotasuna eta beharrak. Ulergarritasuna nolabait neurtzeko eta pixka bat objektiboagoa bihurtzeko erabili dudak baliabide bat izan da hitzen erabilera corpusetan behatzea. Dena den, konturatu naiz ulergarritasun hori lortzea ez dela hain erraza hainbeste landutako testu batean; nahiz eta itzultzaileak oso ondo jakin zer esan nahi duen, irakurleak hori ulertzea lortu behar duelako.

10. Bibliografia

Alberdi Larizgoitia, J. (1996). *Euskararen tratamenduak: erabilera*. Bilbo: Euskaltzaindia <<https://www.euskaltzaindia.eus/dok/ikerbilduma/21014.pdf>>

Ayuntamiento de Almenar de Soria (d.g.) “Historia de Almenar de Soria”. <<https://almenardesoria.es/historia-de-almenar-de-soria/>> [Azken kontsulta data: 2021eko maiatzaren 10a]

Bécquer, G. A. (2005). *Rimas y leyendas / Gustavo Adolfo Bécquer*. Alicante : Biblioteca Virtual Miguel de Cervantes. <<http://www.cervantesvirtual.com/nd/ark:/59851/bmcst7z1>>

Casenave, J. (2008). “Testuartekotasun”. Euskaltzaindia. *Literatura Terminoen Hiztegia*. <https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_xslt&view=frontpage&layout=lth_detail&Itemid=474&search=testuartekotasun>

Eguren, A. (2014). “Hosto lehorrak”. *Berbaratza*. <<https://berbaratza.wordpress.com/2014/11/10/hosto-lehorrak/>>

Estruch Tobella, J. (2011). *Transgresión y fantasía en las leyendas de Bécquer*. Alicante: Biblioteca Virtual Miguel de Cervantes. <<http://www.cervantesvirtual.com/nd/ark:/59851/bmcdn4q0>>

Euskaltzaindia (1999). *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak V*. Bilbo: Euskaltzaindia (174). <https://www.euskaltzaindia.eus/dok/iker_jagon_tegiak/37035.pdf>

Fernández, J., Rupérez, I. (d.g.). “Almenar”. *Castillos de Soria*. <<https://www.castillosdesoria.com/almenar.htm>> [Azken kontsulta data: 2021eko maiatzaren 10a]

Fundéu BBVA. (2017). *Cursiva y redonda. Guía de estilo*. <<https://www.fundeu.es/wp-content/uploads/2013/05/CursivasGuiaFundeu.pdf>>

Letra larria (maiuskula) noiz. (2021). *Euskara Batuaren Eskuliburua*. <https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_ebe&view=bilaketa&Itemid=1161&task=bilaketa&lang=eu&id=1023&highlight=letra+larria>

Lopez Gaseni, M. (1999). *Ilargi-errainua*. Legutiano: Infomart. <<https://ekarriak.armiarma.eus/gordailua/BecquerGAIlargiErrainua.htm>>

Real Academia Española, Asociación de Academias de la Lengua Española. (2010). *Ortografía de la lengua española*. Madrid : Espasa Libros.

Reyes Cano, R. “Gustavo Adolfo Domínguez Bastida” en Real Academia de la Historia, *Diccionario Biográfico electrónico* <<http://dbe.rah.es/biografias/8290/gustavo-adolfo-dominguez-bastida>>

Rubio Jiménez, J. (d.g.). “Presentación del portal Gustavo Adolfo Bécquer”. *Biblioteca Virtual Miguel de Cervantes*. <http://www.cervantesvirtual.com/portales/gustavo_adolfo_becquer/presentacion/>

[Azken kontsulta data: 2021eko maiatzaren 10a]

Sarasola,I.; Salaburu P.; Landa, J. (2021eko otsailaren 15ean eguneratua). *Egungo testuen corpora*. <<http://www.ehu.eus/etc/>>

Serreta. (2021). *Diccionario de la lengua española*. < <https://dle.rae.es/serreta?m=form>>

1. Eranskina: Jatorrizko testua

Lanean aipatu bezala, *CervantesVirtual* web orrian eskuragarri dagoen Bécquerren *Rimas y leyendas* lanean aurki daitekeen kondaira erabili da. Honako esteka honetan eskuragarri: <http://www.cervantesvirtual.com/nd/ark:/59851/bmcst7z1>

Hace mucho tiempo que tenía ganas de escribir cualquier cosa con este título.

Hoy, que se me ha presentado ocasión, lo he puesto con letras grandes en la primera cuartilla de papel, y luego he dejado a capricho volar la pluma.

Yo creo que he visto unos ojos como los que he pintado en esta leyenda. No sé si en sueños, pero yo los he visto. De seguro no los podré describir tales cuales ellos eran, luminosos, transparentes, como las gotas de la lluvia que se resbalan sobre las hojas de los árboles después de una tempestad de verano. De todos modos, cuento con la imaginación de mis lectores para hacerme comprender en este que pudiéramos llamar boceto de un cuadro que pintaré algún día.

- I -

-Herido va el ciervo..., herido va; no hay duda. Se ve el rastro de la sangre entre las zarzas del monte, y al saltar uno de esos lentiscos han flaqueado sus piernas... Nuestro joven señor comienza por donde otros acaban... En cuarenta años de montero no he visto mejor golpe... Pero, ¡por San Saturio, patrón de Soria!, cortadle el paso por esas carrascas, azuzad los perros, soplad en esas trompas hasta echar los hígados y hundidles a los corceles una cuarta de hierro en los ijares; ¿no veis que se dirige hacia la fuente de los Álamos, y si la salva antes de morir podemos darle por perdido?

Las cuencas del Moncayo repitieron de eco en eco el bramido de las trompas, el latir de la jauría desencadenada, y las voces de los pajes resonaron con nueva furia, y el confuso tropel de hombres, caballos y perros se dirigió al punto que Íñigo, el montero mayor de los marqueses de Almenar, señalara como el más a propósito para cortarle el paso a la res.

Pero todo fue inútil. Cuando el más ágil de los lebreles llegó a las carrascas jadeante y cubiertas las fauces de espuma, ya el ciervo, rápido como una saeta, las había salvado de un solo brinco, perdiéndose entre los matorrales de una trocha que conducía a la fuente.

-¡Alto!... ¡Alto todo el mundo! -gritó Íñigo entonces-. Estaba de Dios que había de marcharse.

Y la cabalgata se detuvo, y enmudecieron las trompas, y los lebreles, refunfuñando, dejaron la pista a la voz de los cazadores.

En aquel momento se reunía a la comitiva el héroe de la fiesta, Fernando de Argensola, el primogénito de Almenar.

-¿Qué haces? -exclamó, dirigiéndose a su montero, y en tanto, ya se pintaba el asombro en sus facciones, ya ardía la cólera en sus ojos-. ¿Qué haces, imbécil? ¡Es que la pieza está herida, que es la primera que cae por mi mano, y abandonas el rastro y la dejas perder para que vaya a morir en el fondo del bosque! ¿Crees acaso que he venido a matar ciervos para festines de lobos?

-Señor -murmuró Íñigo entre dientes-, es imposible pasar de este punto.

-¡Imposible! ¿Y por qué?

-Porque esa trocha -prosiguió el montero- conduce a la fuente de los Álamos; la fuente de los Álamos, en cuyas aguas habita un espíritu del mal. El que osa enturbiar su corriente paga caro su atrevimiento. Ya la res habrá salvado sus márgenes; ¿cómo la salvaréis vos sin atraer sobre vuestra cabeza alguna calamidad horrible? Los cazadores somos reyes del Moncayo, pero reyes que pagan un tributo. Pieza que se refugia en esa fuente misteriosa, pieza perdida.

-¡Pieza perdida! Primero perderé yo el señorío de mis padres, y primero perderé el ánima en manos de Satanás que permitir que se me escape ese ciervo, el único que ha herido mi venablo, la primicia de mis excursiones de cazador... ¿Lo ves?... ¿Lo ves?... Aún se distingue a intervalos desde aquí..., las piernas le fallan, su carrera se acorta; déjame..., déjame...; suelta esa brida o te revuelco en el polvo... ¿Quién sabe si no le daré lugar para que llegue a la fuente? Y si llegase, al diablo ella, su limpidez y sus habitantes. ¡Sus! ¡Relámpago! ¡Sus, caballo mío! Si lo alcanzas, mando engarzar los diamantes de mi joyel en tu serreta de oro.

Caballo y jinete partieron como un huracán.

Íñigo los siguió con la vista hasta que se perdieron en la maleza; después volvió los ojos en derredor suyo; todos, como él, permanecieron inmóviles y consternados.

El montero exclamó al fin:

-Señores, vosotros lo habéis visto, me he expuesto a morir entre los pies de su caballo por detenerle. Yo he cumplido con mi deber. Con el diablo no sirven valentías. Hasta aquí llega el montero con su ballesta; de aquí adelante, que pruebe a pasar el capellán con su hisopo.

- II -

-Tenéis la color quebrada; andáis mustio y sombrío; ¿qué os sucede? Desde el día, que yo siempre tendré por funesto, en que llegasteis a la fuente de los Álamos en pos de la res herida, diríase que una mala bruja os ha encanijado con sus hechizos.

Ya no vais a los montes precedido de la ruidosa jauría, ni el clamor de vuestras trompas despierta sus ecos. Solo con esas cavilaciones que os persiguen, todas las mañanas tomáis la ballesta para enderezaros en la espesura y permanecer en ella hasta que el sol se esconde. Y cuando la noche oscurece y volvéis pálido y fatigado al castillo en balde busco en la bandolera los despojos de la caza. ¿Qué os ocupa tan largas horas lejos de los que más os quieren?

Mientras Íñigo hablaba, Fernando, absorto en sus ideas, sacaba maquinalmente astillas de su escaño de ébano con el cuchillo de monte.

Después de un largo silencio, que sólo interrumpía el chirrido de la hoja al resbalarse sobre la pulimentada madera, el joven exclamó dirigiéndose a su servidor, como si no hubiera escuchado una sola de sus palabras:

-Íñigo, tú que eres viejo; tú que conoces todas las guaridas del Moncayo, que has vivido en sus faldas persiguiendo a las fieras y en tus errantes excursiones de cazador subiste más de una vez a su cumbre, dime: ¿has encontrado por acaso una mujer que vive entre sus rocas?

-¡Una mujer! -exclamó el montero con asombro y mirándole de hito en hito.

-Sí -dijo el joven-; es una cosa extraña lo que me sucede, muy extraña... Creí poder guardar ese secreto eternamente, pero no es ya posible; rebosa en mi corazón y asoma a mi semblante. Voy, pues, a revelártelo... Tú me ayudarás a desvanecer el misterio que envuelve a esa criatura, que, al parecer, sólo para mí existe, pues nadie la conoce, ni la ha visto, ni puede darme razón de ella.

El montero, sin desplegar los labios, arrastró su banquillo hasta colocarle junto al escaño de su señor, del que no apartaba un punto los espantados ojos. Éste, después de coordinar sus ideas, prosiguió así:

-Desde el día en que, a pesar de tus funestas predicciones, llegué a la fuente de los Álamos y, atravesando sus aguas, recobré el ciervo que vuestra superstición hubiera dejado huir, se llenó mi alma del deseo de la soledad.

Tú no conoces aquel sitio. Mira, la fuente brota escondida en el seno de una peña y cae resbalándose gota a gota por entre las verdes y flotantes hojas de las plantas que crecen al borde de su cuna. Aquellas gotas, que al desprenderse brillan como puntos de oro y suenan como las notas de un instrumento, se reúnen entre los céspedes, y, susurrando, susurrando, con un ruido semejante al de las abejas que zumban en torno de las flores, se alejan por entre las arenas, y forman un cauce, y luchan con los obstáculos que se oponen a su camino, y se repliegan sobre sí mismas, y saltan, y huyen, y corren, unas veces con risa, otras con suspiros, hasta caer en un lago. En el lago caen con un rumor indescriptible. Lamentos, palabras, nombres, cantares, yo no sé lo que he oído en aquel rumor cuando me he sentado solo y febril sobre el peñasco a cuyos pies saltan las aguas de la fuente misteriosa para estancarse en una balsa profunda, cuya inmóvil superficie apenas riza el viento de la tarde.

Todo es allí grande. La soledad con sus mil rumores desconocidos vive en aquellos lugares y embriaga el espíritu en su inefable melancolía. En las plateadas hojas de los álamos, en los huecos de las peñas, en las ondas del agua parecen que nos hablan los invisibles espíritus de la Naturaleza, que reconocen un hermano en el inmortal espíritu del hombre.

Cuando, al despuntar la mañana, me veías tomar la ballesta y dirigirme al monte, no era nunca para perderme entre sus matorrales en pos de la caza, no; iba a sentarme al borde de la fuente, a buscar en sus ondas... no sé qué, ¡una locura! El día en que salté sobre ella con mi Relámpago creí haber visto brillar en su fondo una cosa extraña..., muy extraña...: los ojos de una mujer.

Tal vez sería un rayo de sol que serpeó fugitivo entre su espuma; tal vez una de esas flores que flotan entre las algas de su seno, y cuyos cálices parecen esmeraldas..., no sé; yo creí ver una mirada que se clavó en la mía; una mirada que encendió en mi pecho un deseo absurdo, irrealizable: el de encontrar una persona con unos ojos como aquellos.

En su busca fui un día y otro a aquel sitio.

Por último, una tarde... yo me creí juguete de un sueño...; pero no, es verdad; la he hablado ya muchas veces, como te hablo a ti ahora...; una tarde encontré sentada en mi puesto, y vestida con unas ropas que llegaban hasta las aguas y flotaban sobre su haz, una mujer hermosa sobre toda ponderación. Sus cabellos eran como el oro; sus pestañas brillaban como hilos de luz, y entre las pestañas volteaban inquietas unas pupilas que yo había visto..., sí, porque los ojos de aquella mujer eran de un color imposible; unos ojos...

-¡Verdes! -exclamó Íñigo con un acento de profundo terror, e incorporándose de un salto en su asiento.

Fernando le miró a su vez como asombrado de que concluyese lo que iba a decir, y le preguntó con una mezcla de ansiedad y de alegría:

-¿La conoces?

-¡Oh no! -dijo el montero-. ¡Líbreme Dios de conocerla! Pero mis padres, al prohibirme llegar hasta esos lugares, me dijeron mil veces que el espíritu, trasgo, demonio o mujer que habita en sus aguas, tiene los ojos de ese color. Yo os conjuro, por lo que más améis en la tierra, a no volver a la fuente de los Álamos. Un día u otro os alcanzará su venganza, y expiaréis muriendo el delito de haber encenagado sus ondas.

-¡Por lo que más amo!... -murmuró el joven con una triste sonrisa.

-Sí -prosiguió el anciano-: por vuestros padres, por vuestros deudos, por las lágrimas de la que el cielo destina para vuestra esposa, por las de un servidor que os ha visto nacer...

-¿Sabes tú lo que más amo en este mundo? ¿Sabes tú por qué daría yo el amor de mi padre, los besos de la que me dio la vida, y todo el cariño que puedan atesorar todas las mujeres de la tierra? Por una mirada, por una sola mirada de esos ojos... ¡Cómo podré yo dejar de buscarlos!

Dijo Fernando estas palabras con tal acento, que la lágrima que temblaba en los párpados de Íñigo se resbaló silenciosa por su mejilla, mientras exclamó con acento sombrío:

-¡Cúmplase la voluntad del cielo!

-¿Quién eres tú? ¿Cuál es tu patria? ¿En dónde habitas? Yo vengo un día y otro en tu busca, y ni veo el corcel que te trae a estos lugares, ni a los servidores que conducen tu litera. Rompe de una vez el misterioso velo en que te envuelves como en una noche profunda. Yo te amo, y, noble o villana, seré tuyo, tuyo siempre...

El sol había traspuesto la cumbre del monte; las sombras bajaban a grandes pasos por su falda; la brisa gemía entre los álamos de la fuente, y la niebla, elevándose poco a poco de la superficie del lago, comenzaba a envolver las rocas de su margen.

Sobre una de estas rocas, sobre una que parecía próxima a desplomarse en el fondo de las aguas, en cuya superficie se retrataba, temblando, el primogénito de Almenar, de rodillas a los pies de su misteriosa amante, procuraba en vano arrancarle el secreto de su existencia.

Ella era hermosa, hermosa y pálida como una estatua de alabastro. Uno de sus rizos caía sobre sus hombros, deslizándose entre los pliegues del velo, como un rayo de sol que atraviesa las nubes, y en el cerco de sus pestañas rubias brillaban sus pupilas, como dos esmeraldas sujetas en una joya de oro.

Cuando el joven acabó de hablarle, sus labios se removieron como para pronunciar algunas palabras; pero sólo exhalaban un suspiro, un suspiro débil, doliente, como el de la ligera onda que empuja una brisa al morir entre los juncos.

-¡No me respondes! -exclamó Fernando al ver burlada su esperanza- ¿Querrás que dé crédito a lo que de ti me han dicho? ¡Oh! No... Háblame; yo quiero saber si me amas; yo quiero saber si puedo amarte, si eres una mujer...

-O un demonio... ¿Y si lo fuese?

El joven vaciló un instante; un sudor frío corrió por sus miembros; sus pupilas se dilataron al fijarse con más intensidad en las de aquella mujer, y, fascinado por su brillo fosfórico, demente casi, exclamó en un arrebató de amor:

-Si lo fueses..., te amaría como te amo ahora, como es mi destino amarte, hasta más allá de esta vida, si hay algo más allá de ella.

-Fernando -dijo la hermosa entonces con una voz semejante a una música-, yo te amo más aún que tú me amas; yo que desciendo hasta un mortal, siendo un espíritu puro. No soy

una mujer como las que existen en la tierra; soy una mujer digna de ti, que eres superior a los demás hombres. Yo vivo en el fondo de estas aguas; incorpórea como ellas, fugaz y transparente, hablo con sus rumores y ondulo con sus pliegues. Yo no castigo al que osa turbar la fuente donde moro; antes le premio con mi amor, como a un mortal superior a las supersticiones del vulgo, como a un amante capaz de comprender mi cariño extraño y misterioso.

Mientras ella hablaba así, el joven, absorto en la contemplación de su fantástica hermosura, atraído como por una fuente desconocida, se aproximaba más y más al borde de la roca. La mujer de los ojos verdes prosiguió así:

-¿Ves, ves el límpido fondo de ese lago, ves esas plantas de largas y verdes hojas que se agitan en su fondo?... Ellas nos darán un lecho de esmeraldas y corales... y yo... te daré una felicidad sin nombre, esa felicidad que has soñado en tus horas de delirio, y que no puede ofrecerte nadie... Ven; la niebla del lago flota sobre nuestras frentes como un pabellón de lino...; las ondas nos llaman con sus voces incomprensibles; el viento empieza entre los álamos sus himnos de amor; ven..., ven...

La noche empezaba a extender sus sombras; la luna rielaba en la superficie del lago; la niebla se arremolinaba al soplo del aire, y los ojos verdes brillaban en la oscuridad como los fuegos fatuos que corren sobre el haz de las aguas infectas... Ven..., ven... Estas palabras zumbaban en los oídos de Fernando como un conjuro. Ven... Y la mujer misteriosa le llamaba al borde del abismo, donde estaba suspendida, y parecía ofrecerle un beso..., un beso...

Fernando dio un paso hacia ella...; otro..., y sintió unos brazos delgados y flexibles que se liaban a su cuello, y una sensación fría en sus labios ardorosos, un beso de nieve..., y vaciló..., y perdió pie, y cayó al agua con un rumor sordo y lúgubre.

Las aguas saltaron en chispas de luz y se cerraron sobre su cuerpo, y sus círculos de plata fueron ensanchándose, ensanchándose hasta expirar en las orillas.

2. Eranskina: Bécquerren XI., XII., XIV. eta XV. errimak

Hauek ere *CervantesVirtual* web orrian eskuragarri dagoen Bécquerren *Rimas y leyendas* lanean aurki daitezke. Honako esteka honetan eskuragarri: <http://www.cervantesvirtual.com/nd/ark:/59851/bmcst7z1>

2.1. Rima XI

-Yo soy ardiente, yo soy morena,
yo soy el símbolo de la pasión;
de ansia de goces mi alma está llena;
¿a mí me buscas? -No es a ti, no.

-Mi frente es pálida; mis trenzas, de oro;
puedo brindarte dichas sin fin;
yo de ternura guardo un tesoro;
¿a mí me llamas? -No, no es a ti.

-Yo soy un sueño, un imposible,
vano fantasma de niebla y luz;
soy incorpórea, soy intangible;
no puedo amarte. -¡Oh, ven; ven tú!

2.2. Rima XII

Porque son, niña, tus ojos
verdes como el mar te quejas:
verdes los tienen las náyades,
verdes los tuvo Minerva
y verdes son las pupilas
de las hurís del profeta.

El verde es gala y ornato
del bosque en la primavera.
Entre sus siete colores
brillante el iris lo ostenta.

Las esmeraldas son verdes,
verde el color del que espera
y las ondas del Océano
y el laurel de los poetas.

Es tu mejilla temprana
rosa de escarcha cubierta,
en que el carmín de los pétalos
se ve al través de las perlas.
Y sin embargo,
sé que te quejas
porque tus ojos
crees que la afean:
pues no lo creas,
que parecen tus pupilas,
húmedas, verdes e inquietas,
tempranas hojas de almendro
que al soplo del aire tiemblan.

Es tu boca de rubíes
purpúrea granada abierta.
que en el estío convida a
apagar la sed en ella.
Y sin embargo,
sé que te quejas
porque tus ojos
crees que la afean:
pues no lo creas,
que parecen, si enojada
tus pupilas centellean,
las olas del mar que rompen
en las cantábricas peñas.

Es tu frente que corona

crespo el oro en ancha trenza,
nevada cumbre en que el día
su postrera luz refleja.

Y sin embargo,
sé que te quejas
porque tus ojos
crees que la afean:
pues no lo creas,
que, entre las rubias pestañas,
junto a las sienes, semejan
broches de esmeralda y oro
que un blanco armiño sujetan.

2.3. Rima XIV

Te vi un punto, y, flotando ante mis ojos,
la imagen de tus ojos se quedó
como la mancha oscura, orlada en fuego,
que flota y ciega si se mira al sol.

Adondequiera que la vista fijo
torno a ver sus pupilas llamear;
mas no te encuentro a ti, que es tu mirada:
unos ojos, los tuyos, nada más.

De mi alcoba en el ángulo los miro
desasidos fantásticos lucir:
cuando duermo los siento que se ciernen
de par en par abiertos sobre mí.

Yo sé que hay fuegos fatuos que en la noche
llevan al caminante a perecer:
yo me siento arrastrado por tus ojos,
pero adónde me arrastran no lo sé.

2.4. Rima XV

Cendal flotante de leve bruma,
rizada cinta de blanca espuma,
rumor sonoro
de arpa de oro,
beso del aura, onda de luz,
eso eres tú.

Tú, sombra aérea, que cuantas veces
voy a tocarte te desvaneces
como la llama, como el sonido,
como la niebla, como el gemido
del lago azul.

En mar sin playas onda sonante,
en el vacío cometa errante,
largo lamento
del ronco viento,
ansia perpetua de algo mejor,
eso soy yo.

¡Yo, que a tus ojos en mi agonía
los ojos vuelvo de noche y día;
yo, que incansable corro demente
tras una sombra, tras la hija ardiente
de una visión!